



HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2022ko AZAROAREN 4a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bigarren urtean, urriaren lauan, arratseko zortzietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2022ko urriaren 28an afixatua izan zen eta 2022ko urriaren 28an posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen.
Hor zirenak	12	
Bozkatzaileak	12	

**Hor zirenak** : ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, OLÇOMENDY Betti jauna

**Hor ez zirenak baina boterea emana zutenak**: CLAUZEL Sébastien jaunak Daniel ITHURBURUA jaunari emana zakon, CURUTCHARRY Antton jaunak COSCARAT Jean Michel jaunari emana zakon, DEGUIRAUD Héliène andereak BIBES Jean Paul jaunari emana zakon

**Bilkurako idazkaria**: BIBES Jean Paul

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea, gai zerrendan puntu bat gehitua izan dela zehaztuz:

- Ikastolaren alokairuaren zenbatekoaren finkatzea
- Nieto andereari lursaila alokatzeko ordainduko zakonaren finkatzea
- Toponimia - bide baten gehitzea
- Euskal Elkargoko Antolaketa zergako herriaren partearen emaitzaren nahitaezko itzultzearen obratzea
- Herriko bideen luzeraren zehaztea
- Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua (Sdepa)- Kortaldeko lotizamenduko argien ordezkatzeta
- 2014ko urriaren 28ko deliberoaren aldaketaren onespina (Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren eta Haristoy Mathieuren lursailen trukatzeta)
- Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak Haristoy andereari utzi lursail baten eskualdatzearen erregularizazioa
- Oilarandoiko Bidearen zati baten besterentzeko erabakiari buruzko deliberoak aldatzea
- Kanpainako Musika Zentroekin (Ikastolaren eta eskola publikoaren musika animazioa) hitzarmen baten izenpetzea
- Kanpineko aitzinkontua aldatzen duen erabakia
- Cuburu etxearen desjabetze prozeduraren segida
- Hirigintza arloan izenpetzeko eskumena axuant baten esku uztea
- Galdera orotarik

**0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA**

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2022ko urriaren 7ko bilkuraren bilduma onartu du.

## **1- 2022-58 DELIBEROA: IKASTOLAREN ALOKAIUAREN ZENBATEKOAREN FINKATZEA - 3.3 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako, lehengo eskola publikoaren eraberritze obren ondorioz, Baigorriko Ikastola Elkarteak gela horiek erabiltzea eskatu zuela ikastola baten ezartzeko. 2017ko azaroan, gelak iraupen laburreko eta aldi baterako okupatzeko lehen hitzarmen bat finkatu zen, bortz urtez irauteko.

Jaun Auzapezak Kontseiluari proposatu dako urteko alokairu bera atxikitzea, hots 4 000.00 €, eta ondoko erabilpen-hitzarmena irakurri du.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **ONARTU DITU** urteko alokairuaren zenbatekoa, 4 000.00 €-tan finkatua, eta hitzarmen proiektua.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **2- 2022-59 DELIBEROA: HERRIAK NIETO ANDEREARI LURSAILA ALOKATZEKO ORDAINDUKO DAKON ZENBATEKOAREN FINKATZEA - 3.3 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako Herriak NIETO Isabel anderearen lur eremu bat erabiltzen duela kirol jarduerendako.

Herriak lur eremu hori aparkaleku gisa erabiltzen du, bertzalde, noizbehinka, herrian antolatu kultura eta kirol gertakari batzuen kari. Erabilera hori alokairu-kontratu baten bidez zehaztu behar da.

Jaun Auzapezak urtean 4 000 €-ko alokairu bat proposatu du, Herriak lur hori okupatzen duela eta.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **ONARTU DU** urteko alokairuaren zenbatekoa, 4 000 €-tan finkaturik.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **3- TOPONIMIA - BIDE BATEN GEHITZEA (HIRUGARREN ETXE BATEN ERAIKITZEAREN ONDORIOZ)**

Deliberorik ez - Hirugarren etxe bat eraikitzen ari da Oronozaldeko biderat doan duen bide batean. Jakinez bide horretan ez dela beste eraikuntzarik izanen, bertze 2ak erakunde guzientzat beren helbidea aldatzerat ez behartzeko, helbideen sistema den bezala uzten da, 3 gutunontziak bidearen hastapenean ezarririk.

## **4- 2022-60 DELIBEROA: EUSKAL ELKARGOKO ANTOLAKETA ZERGAKO HERRIAREN PARTEAREN EMAITZAREN NAHITAEZKO ITZULTZEAREN OBRATZEA -**

2022ko azaroaren 4ko bilduma

## **7.10 NOMENKLATURA**

Auzapezak azaldu du,

Hirigintza kodeko L.331-1 artikulua araberan, Herriko Kontseiluak zerga bat plantan ezarri du/ezarriko du, bere lurraldeko antolaketa-erengatik eta eraikuntza-erengatik beharrezkoak diren ekipamendu publikoen gastuen finantzatzeko.

2022rako finantza legeak behartzen du zerga horren herriaren partearen emaitza partekatzea herriaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean, elkargo bakoitzari dagozkion gastuak hobeki kontuan hartzeko.

2022ko buruilararen 24ko delibero baten bidez, Euskal Herriko Hirigune Herriarteko Kontseiluak, bere finantza eta zerga itunaren segidan, zerga horren itzultzearen eremua finkatu du.

Antolaketa zergaren itzultzea elkargoko **jarduera ekonomiko eremu berrietan egiten diren hirigintza-baimenen emaitza bakarrera** (sortzea/hedatzea) **mugatua izanen da**, herriari zerga horren diru-sartze kasik guzieren atxikitzea ahalbidetuz, urbanizazioaren garatzeak beharrezko bilakatzen dituen herri-ekipamenduen finantzatzea segurtatzeko.

Herriak herriko antolaketa tasaren proportzio bat ere atxikitzen ahal du, baldin eta herriak elkargoko jarduera ekonomiko eremuetan herriko ekipamendu publikoetarako gastuak justifikatzen ahal baditu.

Hori ikusirik, Herriko Kontseiluari eskatzen zako:

- Jarduera ekonomiko eremu berrietan egiten diren hirigintza-baimenen emaitzetan bakarrik (sortzea/hedatzea) bildu herriko antolaketa zergaren % 100 Euskal Hirigune Elkargoari **itzultzea ONARTZEA;**
- dagokion itzulketa-**hitzarmenak dioena ONARTZEA**
- Jaun Auzapezari hitzarmenaren izenpetzeko **BAIMENA EMAITEA,**

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **5- 2022-61 DELIBEROA: HERRIKO BIDEEN LUZERAREN ZEHAZTEA – 9.1 NOMENKLATURA**

Helbide sistemari buruz egin lanaren ondorioz, herriak herriko bidearen luzera eguneratu nahi du.

*Ikusirik*

- *Lurralde Elkargoaren Kode Orokorreko L.2121-29 artikulua*
- *Lurralde Elkargoaren Kode Orokorreko L.2334-1 artikulutik L.2334-23ra*

Gogoan hartuz

Funtzionamendu Dotazio Orokorren kalkulu moldea, bereziki herriko bidearen luzerari buruzko irizpidean oinarritzen baita,

Herriko bideen gaurkotzearen deklaratzeko eginbeharra, herriko jabego publikoan bide berrien sailkatzea kontuan harturik,

deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **Herriko bideen luzera 102 427 km-koa dela ONETSI DU**
  - • **ONTZAT EMAN DU** hemengo gehigarrian den taula

*2022ko azaroaren 4ko bilduma*

- **BAIMENA EMAN DAKO** Jaun Auzapezari luzera berri hori prefeturako zerbitzuer deklaratzeko, Funtzionamendu Dotazio Orokorraren kalkulatzeko baliatua izan dadin.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

#### HERRIKO BIDEEN TAULA

NOM VOIE	BIDEAREN IZENA	BIDEAREN LUZERA, M-tan
Chemin d'Agerrea	Agerreko bidea	320
Chemin d'Ahuntzainenea	Ahuntzaineko bidea	1494
Chemin d'Andresenea	Andreseneko bidea	129
Chemin d'Aparaineko erreka	Aparaineko erreka bidea	1043
Chemin d'Ardantzea	Ardantzeko bidea	88
Chemin d'Arkoxainea	Arkoxaineko bidea	158
Chemin d'Arraintegia	Arraintegiko bidea	725
Chemin d'Atherbea	Atherbeko bidea	65
Chemin d'Irazelaia	Irazelaiko bidea	120
Chemin d'Auzotipia	Auzotipiko bidea	3980
Place de Baigorri	Baigorriko plaza	154
Chemin de Bastida	Bastidako bidea	2868
Rue du Bas	Behereko karrika	460
Chemin de Belexi	Belexiko bidea	8318
Chemin de Berraunberria	Berraunberriko bidea	645
Chemin de Betartea	Betarteko bidea	175
Chemin de Bidainea	Bidaineko bidea	3154
Chemin de Bordaberria	Bordaberriko bidea	306
Chemin de Bordda	Borddako bidea	910
Chemin de Burno	Burnoko bidea	117
Chemin de Bordaldea	Bordaldeko bidea	1049
Chemin de la cave	Sotoko bidea	201
Chemin d'Etxegaraia	Etxegaraiko bidea	325
Chemin de Domingohandienea	Domingohandieneko bidea	344
Rue de l'Eglise	Elizako karrika	95
Chemin d'Elorrieta	Elorrietako bidea	8069
Chemin de Heraunea	Herauneko bidea	896
Chemin d'Erdiko borda	Erdiko bordako bidea	1074
Chemin d'Erramunenea	Erramuneko bidea	129
Allée d'Erregenea	Erregenekoa bidexka	63
Chemin d'Errekaldea	Errekaldeko bidea	108
Chemin d'Erretenia	Erreteniako bidea	3310
Chemin d'Eskola	Eskolako bidea	69
Chemin d'Etxaluzenea	Etxaluzeneko bidea	139
Chemin d'Etxauzea	Etxauzeko bidea	598
Chemin d'Etxeberria	Etxeberriko bidea	194
Rond Point Etxeberri	Etxeberriko biribilgunea	42
Chemin d'Etxemendia	Etxemendiko bidea	154

Chemin d'Etzaunalde	Etzaunaldeko bidea	85
Rue d'En Haut	Gaineko karrika	1091
Chemin de Garakotxea	Garakotzeko bidea	106
Chemin de Garatea	Garateko bidea	73
Chemin de Gaximerreka	Gaximerrekako bidea	271
Rond-Point de la Gare	Geltokiko biribilgunea	65
Rue de la Gare	Geltokiko bidea	169

<b>NOM VOIE</b>	<b>BIDEAREN IZENA</b>	<b>BIDEAREN LUZERA, M-tan</b>
Chemin de Gerexinaenea	Gerexinaeneko bidea	62
Chemin de Germieta	Germietako bidea	2671
Chemin de Gixontoenea	Gixontoneko bidea	132
Chemin de Haitzaldea	Haitzaldeko bidea	1821
Chemin de Harginaenea	Harginaeneko bidea	172
Chemin de Harixpeinea	Harixpeineko bidea	226
Chemin de Harrobigaina	Harrobigaineko bidea	252
Chemin de Idiarteko bora	Idiarteko bordako bidea	335
Chemin de Iparragerrea	Iparragerreko bidea	364
Chemin d'Irube	Irubeko bidea	2254
Chemin d'Itzainea	Itzaineko bidea	81
Chemin d'Ixabelenea	Ixabeleneko bidea	149
Chemin de Jara	Jarako bidea	2020
Chemin de Jatsalde	Jatsaldeko bidea	102
Chemin de Gaztenerreka	Gaztenerrekako bidea	531
Chemin de la Chapelle	Kaperako bidea	178
Chemin de Kaskoin Karrika	Kaskoin karrikako bidea	838
Chemin de Kattalinaenea	Kattalinaeneko bidea	146
Rond-Point du Collège	Kolegioko biribilgunea	74
Chemin de Kopena	Kopenako bidea	221
Chemin de Kortaldea	Kortaldeko bidea	568
Chemin de Kurutxeta	Kurutxetako bidea	382
Allée de Lakoa	Lakoko bidexka	67
Chemin de Landagaraia	Landagaraiko bidea	163
Chemin de Larla	Larlako bidea	4852
Chemin de Leizaratzu	Leizaratzuko bidea	1082
Chemin de Leizartze	Leizartzeko bidea	4038
Chemin de Luisenea	Luiseneko bidea	401
Chemin de Mokozaia	Mokozaineko bidea	306
Route de Manexenea	Manexeneko errepidea	1558
Chemin de Mendigain	Mendigaineko bidea	201
Chemin de Mixelenea	Mixeleneko bidea	626
Chemin de Morroinenea	Morroineneko bidea	220
Chemin de Moxogaraia	Moxogaraiko bidea	174
Chemin de Napalea	Napaleko bidea	328
Allée d'Oihan Ttipi	Oihanttipiko bidexka	150
Chemin d'Oilarandoia	Oilarandoiko bidea	2788
Chemin d'Okoztegi	Okoztegiko bidea	216

2022ko azaroaren 4ko bilduma

Chemin d'Oñaki	Oñakiko bidea	118
Chemin d'Oronzaldea	Oronzaldeko bidea	1704
Route d'Otikoren	Otikoreneko errepidea	1800
Rue d'Otsaldea	Otsaldeko karrika	143
Chemin de Pagottoa	Pagottoko bidea	441
Chemin de Petrixanea	Petrixaneko bidea	89
Chemin de Pikomendi	Pikomendiko bidea	66

<b>NOM VOIE</b>	<b>BIDEAREN IZENA</b>	<b>BIDEAREN LUZERA, M-tan</b>
Chemin de Pokoenea	Pokoeneko bidea	952
Chemin de Xamuka	Xamukako bidea	235
Chemin de Sagarainea	Sagaraineko bidea	732
Chemin de Salaburua	Salaburuko bidea	302
Chemin de Saliesenborda	Saliesenbordako bidea	137
Chemin de Santoinea	Santoineko bidea	148
Chemin de Suhilarrea	Suhilarreko bidea	641
Chemin de Taneria	Taneriako bidea	164
Chemin de Tokilepo	Tokilepoko bidea	2663
Chemin de Tuloa	Tuloko bidea	2563
Chemin d'Uharrieta	Uharrietako bidea	2279
Chemin d'Hurbeltzenia	Hurbeltzeneko bidea	1530
Chemin d'Urdoz	Urdozeko bidea	1450
Chemin de Xiriategia	Xiriategiko bidea	843
Chemin de Xokoa	Xokoko bidea	178
Chemin de Zelaia	Zelaiko bidea	206
Chemin de Zortzalbeherea	Zorzalbehereko bidea	131
Chemin de Zubiburu	Zubiburuko bidea	109
Chemin de Mehaka	Mehakako bidea	765
Chemin des Cagots	Agotten bidea	67
Chemin de Piarrenborda	Piarrenbordako bidea	97
Chemin d'Etxaluzpeko	Etxaluzpeko bidea	40
Chemin de Herriondoa	Herriondoko bidea	89
Chemin de Salaberria	Salaberriko bidea	426
Chemin de Xelakoborda	Xelakobordako bidea	215
Chemin de Gorriaenea	Gorriaeneko bidea	691
Chemin de Dorrea	Dorreko bidea	51
Chemin de Iroltxa	Iroltxako bidea	81
Route de Baigorri	Baigorriko errepidea	398
Chemin de Ihitzaga	Ihitzagako bidea	153
Chemin de Etxartea	Etxarteko bidea	128
Chemin de Banka Gorriaenea	Bankako Gorriaeneko bidea	347
Chemin de Landabeherea	Landabehereko bidea	54
Chemin de Kurutxa	Kurutxako bidea	344
Chemin de Arbazarrea	Arbazarreko bidea	170
Chemin de Larrebuztan	Larrebuztaneko bidea	189
Chemin du Col d'Adartza	Adartzakolepoko bidea	3208
Chemin d'Atxoainea	Atxoaineko bidea	433

2022ko azaroaren 4ko bilduma

Chemin d'Iparla	Iparlako bidea	160
		<b>102427</b>

**6- 2022-62 DELIBEROA: ARGITERIA PUBLIKOAREN MANTENTZEA - MANTENTZE HANDIA - "Argiteria publikoaren mantentze handia - MANTENTZE HANDIA PROGRAMA (Herriak) 2022" Herri partaidetzaren finantzamendu proiektuaren ONESPENA - 22GEEP133 AFERA - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskatu dakola **Cortalde lotizamenduko G28 eta G29 argiontzien ordezkatzeko obren azterketa egitea.**

Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeko lehendakari jaunak Herriari jakinarazi dako egin behar diren obren kostuaren estimazioa. Obra horiek COREBA GEEP enpresaren esku utziak izan dira.

Jaun Auzapezak zehaztu du lan horiek "Mantentze Lan Publikoa - Mantentze Haundia - Mantentze Publiko Haundia (Herriak) 2022" programan sartuak izanen direla. Herriko Kontseiluari proposatu dako gastuaren zenbatekoa onartzea eta lan horien finantzaketaren bozkatzea.

Auzapezaren azalpena ENTZUNIK eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

**ERABAKI DU** lehen izendatuak izan diren obrak egitea eta lanak burutzeko ardura Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eman dako.

**ONARTU DU** egin beharreko obren eta gastuen zenbatekoa, honela zatiturik:

Obren zenbatekoa, zergak barne	1 637.81 €
Obralarizarako, obragintzarako eta ustekabetarako laguntza	136.48 €
TE64aren kudeaketa gastuak	68.24 €
<b>OROTARAT</b>	<b>1 842.53 €</b>

**ONARTU DU** operazioaren finantzatzeko plana, honela zatiturik:

Sindikataren parte hartzea	1 050,92 €
Herriaren parte hartzea, finantzatu behar diren obretan, funts libreen bidez	723,37 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreen bidez finantzatzekoak)	68,24 €
<b>OROTARAT</b>	<b>1 842,53 €</b>

Herriaren behin betiko parte hartzea obren behin betiko zenbaketa egin ondotik erabakiko da.

Gainerat, Herriak obretan parte hartzea bere "Funts libreen" bidez finantzatzen badu, TE64ak zati ordainketa bat edo gehiago eskatu ahal izanen dazko, egin obren arabera.

- **ONARTU DU** Herri jabegoan bide-zorra kitorik izateko hitzarmena.
- Oraingo deliberoa legezkotasuneko kontrolari **HELARAZI DAKO**.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **7- 2022-63 DELIBEROA: BAIGORRIKO IBARREKO MENDI ELKARGOAREN ETA HARISTOY MATHIEUREN LURSAILEN TRUKATZEARI BURUZKO DELIBEROAREN ALDAKETAREN ONESPENA (deliberoa 2014ko urriaren 28an hartu zen) - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako, 2014ko urriaren 28ko deliberoaren bidez, Herriak Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren eta Haristoy Mathieuren lursailen trukatzea onetsi zuela, 2014ko ekainaren 30eko deliberoaren bidez berretsirik.

Jaun Auzapezak zehaztu du delibero horretan aipatu lur sailak ez zirela behar zirenak eta, beraz, trukaketa erregularizatu behar dela, delibero horretan aldaketak eginez.

Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak norabide horretan deliberatu du 2022ko urriaren 03an, hau zehaztuz:

*Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoko 488 eta 492p lursailak, E sekziokoak, 57 area eta 38 zentiareakoak, Bankako herriko kadastran daudenak, HARISTOY Mathieu jaunari alokatzeko kontratu bat eginen da.*

*Horren truke,*

*HARISTOY Mathieu jaunaren 390p lursaila, D sekziokoa, 1 hektareako 14 area eta 76 zentiareako azalerakoa, Bankako herriko kadastran dagoena, Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargori alokatzeko kontratu bat eginen da.*

Jaun Auzapezak Kontseiluari proposatu dako HARISTOY Mathieu jaunaren eta Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren arteko trukearen aldaketa onartzea.

Auzapeza entzun ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ONARTU DU** HARISTOY Mathieu jaunaren eta Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren arteko trukearen aldatzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **8- 2022-64 DELIBEROA: HARISTOY MARIE-ANNE ANDEREARI ETA, ONDORENGOTZAZ, HARISTOY MATHIEU JAUNARI BAIGORRIKO IBARREKO MENDI ELKARGOAK LURSAIL BATEN UZTEAREN ERREGULARIZAZIOA ONARTZEA - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak 2022ko urriaren 3an hartu deliberoa irakurri du.

Esplikatu du Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak, 1970ean, erabaki zuela Bankako herriko 504 lursaila, E sekziokoa, HARISTOY Marie-Anne andereari uztea. Ordainetan, HARISTOY anderea engaiatu zen Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren jabegoko oihan batzuetara eta Orkachtya izeneko oihanera joateko bidea uztera.

Bainan bi aldeek ez zuten neholako desmartxarrik egin.

Haristoy Mathieu jaunak, Bankako Gnafar etxearen egungo jabeak, nahi luke uztea ofizialki gauzatua izan dadin.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

*2022ko azaroaren 4ko bilduma*



**ONARTU DU** Bankako Bankako herriko 504 lursaila, E sekziokoa, HARISTOY Mathieu jaunari uztearen erregularizazioa, Orkachtya izeneko oihanera joateko bidea uztearen truke.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

### **9- 2022-65 DELIBEROA: OILARANDOIKO BIDEAREN ZATI BATEN BESTERENTZEKO ERABAKIARI BURUZKO 2021eko ABENDUAREN 17ko ETA 2022ko OTSAILAREN 4ko DELIBEROEN ALDATZEA - 3.2 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak oroitarazi du 2021eko abenduaren 17ko eta 2022ko otsailaren 4ko deliberoen bidez Oilarandoiko bidearen zati baten kentzea eta besterentzea deliberatu zela.

Jaun Auzapezak zehaztu du noizbehinkako bide-zor bat sortuko dela, etorkizuneko kadastrako lursaila zamatuz, C 553 eta 967 sekzioetako kadastrako lursailen onetan.

ARRAZOI HORIENGATIK, Herriko Kontseiluak,

**ERABAKI DU** Oilarandoiko bidea izeneko bidearen zati baten kentzea eta besterentzea, hemengo gehigarrian den lursailen mapari segituz.

**ZEHAZTU DU** zati hori kadastrako C 1563 sekzioan dagoela, 04 a 37 ca-ko edukierarekin, jabego publikotik datorrena, 1 €/ m<sup>2</sup>-ko prezioan, hots, 437 €-tan

etorkizuneko kadastrako lursaila zamatuko duen noizbehinkako bide-zor bat sortuko dela C 553 eta 967 sekzioetako kadastrako lursailen probetxuko

Jaun Auzapezaren **GAIN UTZI DU** hunki jabeak bidearen zatia erostera eta horretarako beharrezkoak diren formalitate guztiak egitera behartzea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Parte hartu duten kideen kopurua: 11

Bozkatu dutenen kopurua: 14 (Mochó jaunak ez du eztabaidan eta bozkan parte hartu)

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

### **10- 2022-66 DELIBEROA: KANPAINAKO MUSIKA ZENTROEKIN (MUSIKA ESKOLEN ANIMAZIOA) HITZARMENA IZENPETZEA – 1.4 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak eskola publikoan eta ikastolan burutu musika animazioari dagokion hitzarmen proiektua irakurri du.

Hitzarmen hori 2022ko buruilaren 1etik 2023ko agorrilaren 31 arte egina da. Musika animazio honen zenbatekoa 4 681.35 €-koa da.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- Honi erantsia den hitzarmenaren izenpetzea **ONETSI DU**, ondoko diru kopuruarekin: **4 681.35 €**  
*2022ko azaroaren 4ko bilduma*

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **11- 2022-67 DELIBEROA: KANPINAREN AURREKONTUA ALDATZEKO ERABAKIA - 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Kontseiluari jakinarazi dako aurrekontu nagusian agertzen diren eskritura batzuk kanpineko aurrekonturat pasatu behar direla; horren egiteko, aurrekontuan aldaketak egin behar dira, honela:

### **INBESTIZAMENDUA**

GASTUAK		SARTZEAK	
Artikulu-operazioa	Zenbatekoa	Artikulu-operazioa	Zenbatekoa
2131-op 14	5 100.00	021- Funtzionamendu sailetik isurtzea	5 100.00

### **FUNTZIONAMENDUA**

GASTUAK		SARTZEAK	
Artikulu-operazioa	Zenbatekoa	Artikulu-operazioa	Zenbatekoa
023- Inbestizamendu sailera isurtzea	5 100.00		
6068	- 5 100.00		
<b>GASTUAK OROTARAT</b>	<b>5 100.00</b>	<b>SARTZEAK OROTARAT</b>	<b>5 100.00</b>

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ONARTU DITU** gorago aipatu aurrekontuan egin aldaketak

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **12- CUBURU ETXEAREN DESJABETZE PROZEDURA**

Deliberoa gibelatua, frogagiriak azaroaren 04an ez baitira errezibituak

## **13- 2022-68 DELIBEROA: HIRIGINTZA ARLOAN IZENPETZEKO ESKUMENA AXUANT BATI EMAITEA - 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak biltzarrari oroitarazi dako bere eskumen osoa baliatu behar duela hirigintza baimenen emaitako.

Hala ere, Hirigintza Kodeko L. 422-7 artikulua araberan, Herriko Kontseilua proiektuan interesatua bada, Auzapeza proiektuan zinez interesatua dela segurtatu ondotik, Kontseiluak, delibero berezi baten bidez, hautetsi bat izendatu behar du, bere baitan, galdegina den hirigintza baimenari buruzko erabakia har dezan.

Jaun Auzapezak, beraz, Herriko Kontseiluari galdegin dako, auzapezak, haren familiako kide bat, haren enpresak, presentatu hirigintza eskaera bat izanen litzatekeen kasurako, izenpetzeko eskumena duen axuant bat izenda dezan.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ERABAKI DU MOUSQUES Bernadette anderea izendatzea**

*2022ko azaroaren 4ko bilduma*

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 12  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

---

## 1. AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA

- 2022ko urriaren 12an, aro txarrak ekarri desmasien ondorioz, bideak birgaitzeko obren kontratuaren izenpetzea (137 837 € zergarik gabe) ETCHART CONSTRUCTION enpresarekin
- 2022ko urriaren 13an, aro txarrak ekarri desmasien ondorioz, bideak birgaitzeko obren kontratuaren izenpetzea (208 527 € zergarik gabe) Carrières et Travaux de Navarre enpresarekin izenpetzea
- Aldi baterako okupazioaren hitzarmenaren izenpetzea Ikastolen Egoitzak eta Baigorriko Ikastola elkarteekin
- Herriak Nieto anderearen lurra okupatzeari buruzko alokatze kontratuaren izenpetzea
- Crédit Agricole bankuan mailegu baten egitea (500 000.00 €)

## 2. GAI OROTARIK

Solasaladia EPFL eta HSAren proposamenez, Cuburu etxearen birgaitzearen inguruan

Bilkuran hartu deliberoak 58tik 68rat zenbakitua dira.

Hor ziren kideen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, OLÇOMENDY Betti jauna,

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>
--------------------------------	---